



EUSKADIKO UDALEN ELKARTEA
ASOCIACIÓN DE MUNICIPIOS VASCOS

IMANOL LANDA, EUDELeko elkarteburua eta Getxoko alkatea

QEPEA-HERRI ADMINISTRAZIOETAKO KUDEAKETA AURRERATUARI BURUZKO BILTZARRAREN IREKIERA

Donostian, maiatzak 19

Lehenik eta behin, eskerrak eman nahi dizkiot Q-Epea erakundeari, instituzioen gainerako ordezkariekin eta entitate kolaboratzaileekin batera, Ohorezko Batzorde honetan berriro ere parte hartzeko egin didan gonbitagatik.

Kudeaketa Publikoaren Aurreratuari buruzko VI. Biltzarrak bat egiten du Euskadiko administrazioentzat itxaropen handikoa den garai batekin.

Esperientzia handia dugu, kalitaterako eta bikaintasunerako bidean. Hainbat eraldaketa bizi izan ditugu, eta aldaketetara egokitzen jakin izan dugu. **Bultzada sortzailearen, adimenaren eta lidergoaren** bitartez, bidean topatu ditugun oztopoak aukera bihurtu ditugu.

Gaur egun, hala ere, aldaketak sakonagoak eta konplexuagoak dira administrazio guztientzat, bereziki, tokiko administrazioentzat. Gure antolamendua, gure prozesuak eta prozedurak garai berriek ezartzen duten erritmora eta indarrera egokitu behar dira. Garai honen ezaugarriak araudi berria, berrikuntza teknologikoa eta herritarrekiko harreman estu eta zuzenagorako beharra dira.

Gure buruari begiratzeari utzi diogu, herritarrengan arreta handiagoa jartzeko. **Gardentasuna, parte-hartzea eta, batez ere, etika eta osotasun publikoa** dira Gobernantza onaren balioak, gaur egun kudeaketa publikoa bideratzeko balioak.

Manuel Villoria katedradunak orain dela gutxi IVAPen aldizkarian argitaratutako artikulua batean esan bezala: Zergatik jakin nahi dugu gauzak NOLA egin, ZERTARAKO egiten ditugun ez badakigu? Villoriak dio gaur egun inoiz baino beharrezkoagoa dela **“alderdi publikoaren sustraletara bueltatzea”**, ekintza publikoa bideratuko duten printzipio, balio eta arauen inguruan hausnartzea.

Euskadiko administrazioak **paradigma aldaketa** berri baten aurrean gaude. Gure jarduna **kudeaketa eredu aurreratu (edo bikain) batera** bideratzeak hainbat **aukera** ematen dizkigu: herritarrei eta enpresei arreta hobea eskaintzea, pertsona gehiagorengana heltzea, euren beharretara modu zehatzagoan egokitzea eta haiekin informazioa, iradokizunak eta ikuspuntuak trukitzea.

Ez dut esan nahi zeregin erraza denik, baina, orain, **Euskadiko Tokiko Erakundeen Legearen** testuinguru instituzionala dugu, eta hori bultzada handia da kudeaketa publikoaren eredu berria praktikan jartzeko.

EUDELeK urteak daramatza udal kudeaketa aurreratuko tresnak garatzen. Adibidez, udalentsat erabilgarriak diren metodologiak eta materialak, beraien tamaina eta baliabideetara egokituta, betiere, lankidetzaren ikuspegitik.

Hain zuzen, **Euskadiko Administrazio Publikoaren** indar eraldatzailea esparru ugarian antzematen da: udalen, Eusko Jaurlaritzaren eta Aldundien arteko lankidetzaren esparruko eguneroko lanean, baita bestelako eragilean lankidetzan ere, adibidez, Q-Epea taldeak berak eskaintzen duen lankidetzan.

Beraz, animatu egiten zaituztet Biltzar honetan modu aktiboan parte hartzera eta **praktika onak eta irtenbideak** partekatzerara, lana errazago, arinago eta eraginkorrago bihurtzeko, betiere, **herritarrei zerbitzu hobea** eskaintzeko helburuarekin.

Bi egun hauetan, **irudika dezagun elkarrekin** gure administrazioen etorkizuna, eta **bila ditzagun** hori egia bihurtzeko tresnak.